

Marmari

15. zenbakia / 2007ko abuztua

Leizako

aldizkaria

- Biziurapena
- Bai Euskarari ekitaldia
- Cederna Garalur: berdintasunaren urtea
- Izen-abizenak



**Euskara
denona da
Denon artean eutsi!!**

zenbaki honetan:



20-21. or. Zer egin dezaket euskararen alde?

22-23. or. Etxepare beka.

25. or. Ezetz asmatu.

26. or. Denbora pasak.

27. or. Txistek eta Eroskopoak.

28. or. Izen-abizenak.

3. or. Aurkezpena.

4-7. or. Bai Euskarari.

8-11. or. Biziraupena.

12-16. or.
Cederna Garalur.

17-19. or. Euskararen
inguruko berri motzak.

UDA HELDU DA, BAINA EGUZKIA EZ HAMABOSGARREN MARMARI BERRIZ HEMEN DA

15

Uda ailegatu da, baina ez da nabari. Eguraldi kaxkarra egiten ari du. Udazkenena dela dirudi. Eguzkia nahi badugu kanpora joan behar al gara? Zorionez, tarteka eguzkia ateratzen da, eta igerilekura joateko aukera dugu. Udarekin batera Marmari ere heldu zaigu, hamabosgarrena jada.

Marmariren zenbaki honetan, bi erreportaje nabarmendu izan nahi ditugu. Alde batetik Cederna Garalurrek berdintasunaren urtea dela-eta egindako erreportajea, eta bestetik, Bai Euskarari.

CEDERNA-GARALUR Nafarroako mendialdeko garapen agentzia da. Zerbitzu desberdinak eskaintzen ditu, denak landa garapenaren inguruan. Informazio gehiago nahi ezkeru web orria bisita dezakezu. CEDERNA-GARALUR ek eskaintzen dituen zerbi-

tzuen artean, Lan Orientazio Zerbitzua ere badago. Zerbitzu honen helburu orokorra Mendialdeko giza baliabideak eta enpresen beharrak doitzea da.

Bai Euskarari dagokionez, duela 6 urte sortu zen Bai Euskarari Ziurtagiria eta dagoeneko, Euskal Herri osoko 1350 entitatek eskuratu dute. Gero eta herri gehiagok hartzen dute parte proiektu honetan. Leitza, Goizueta, Areso eta Arano 2004. urtean sartu ziren Bai Euskarari Ziurtagiria ekimean. Bertako euskalgintzak eta euskara zerbitzuak bultzatuta, Kontseiluari proposamena egin zitzaion eta prozesua abiatu zen. Leitza Bai Euskarari Akordioa abiatu zenetik laugarren ekitaldia izan dugu aurten. Ekitaldi horrek urte bateko lanen emaitza islatu nahi du. Ziurtagiria jaso duten 51 saltoki, enpre-

sa eta bestelako entitate Leitza eta Aresoak izan dira; gainontzeko 19ak, Goizueta eta Aranokoak.

Zenbaki honetan betiko moduan euskararen gaia jorratu dugu, euskara baita gure identitatearen oinarria, gure izaera baldintzatzen duena. Euskararen inguruko bi erreportaje ditugu: zer egin dezaket euskararengatik? Galdetu al diozue inoiz zuen buruari zer egin dezkezen euskararen alde? Euskara guztiona da, eta guztiok egin diezaiokegu ekarpenen bat euskarari, bakoitzak bere modura. Bestalde, euskararen inguruko berriak jakin nahi badituzuen hementze aukera ederra.

Goza ezazue Marmari irakurtzen. Anima zaitetze eta parte hartu, ziur aski Leitzaiko gauza intersegarrrien berri izango duzue, txutxumutxuren bat...



Bai Euskarari Leitzaldean


Duela 6 urte sortu zen Bai Euskarari Ziurtagiria eta dagoeneko, Euskal Herri osoko 1350 entitatek eskuratu dute. Gero eta herri gehiagok hartzen dute parte proiektu honetan eta honen adibide garbia da gaurko hitzarmena. BAI EUSKARARI egitasmoa oso hedatuta dago. Herri askotan hainbat ekimen egiten dira.

Leitza, Goizueta, Areso eta Arano 2004. urtean sartu ziren Bai Euskarari Ziurtagiria ekimenean. Bertako euskalgintzak eta euskara zerbitzuak bultzatuta, Kontseiluari proposamena egin zitzaion eta prozesua abiatu zen.

Bi fase nagusi izan zituen ekimenak: lehendabiziko fasean, herritarren eta eragileen artean Bai Euskarari Akordio-

aren berri eman zen, eta ekimenaren inguruko giroa sortzen ahalegindu ziren.

Bigarren fasean, Kontseiluaren ize-nean lanean aritu ziren teknikariek (bat Leitza-Areson eta bestea Goizueta-Araron), eragileak bisitatu zituzten, eta konpromisoak hartzeko eta ziurtagiria eskuratzeko proposamena egin zieten. Eskualdean eragile ugari dagoenez, no-



labaiteko hautaketa bat egin zen, eta horiengana jo zen. Prozesuan parte hartze-ko gonbita, nolahi ere, lau herriotako eragile guztiei egin zitzairen. 150 gizarte eragilerengan jo zen. 2 hilabetez.

Bi fase horien bukaeran, azkenik, ziurtagiriaren banaketa ekitaldia egin zen, 2004ko uztailaren hasieran. Esan bezala, 78 eragilek lortu zuten ziurtagiria; beraz, 78 eragile horiek euskararen normalizaziorako konpromisoak hartu zituzten.

2006ko azaroan Kontseiluak, UEMAk eta Iparraldeko Mankomunitateak Leitzan euskararen alde lankidetzan aritzeko asmoa azaldu zuten. Aipatutako hiru erakundeek Bai Euskarari Ziurtagiria elkarrekin sustatzeko konpromisoa hartu dute eta lankidetzaren aurkezpena egin zuten. “Guztiok elkarrekin

abiatu dugun elkarlana oso interesgarria da, lehendik egiten ari zen lana osatzera baitator”, adierazi zuen Kontseiluko ordezkariak. Ondotik Leitza, Goizueta, Arano eta Aresoko udalek beste urrats bat eman zuten euskararen aldeko prozesuan. Hilabete horretan bertan Kontseiluak, UEMAk eta Iparraldeko Mankomunitateak Leitzan Bai Euskarari Ziurtagiria elkarlanean sustatzeko hitzarmena sinatu ostean, Kontseiluak eta Mankomunitateko udalek ere izenpetu zuten.

Lau urte hauetan Euskararekiko konpromisoa eta lana mantendu egin da. **Ziurtagiriaren Elkarte** sortu berriak

Bai Euskarari Ziurtagiriak banatu dizkie euskararen normalizaziorako neurriak garatzen ari diren Leitzaldeko entitateei. Izan ere, aurreko astean Donostiako Kursaal aretoan ospatutako ekitaldi nagusian Kontseiluak, proiektuaren kudeaketaren lekukoa pasatu dio Ziurtagiriaren Elkarte berriari. Hemendik aurrera, Ziurtagiriaren Elkartearen esku egongo da Bai Euskarari Ziurtagiriaren kudeaketa.

Leitzan Bai Euskarari Akordioa abiatu zenetik laugarren ekitaldia izan dugu aurten. Ekitaldi horrek urte bateko lanen emaitza islatu nahi du. Ziurtagiria jaso



duten 51 saltoki, enpresa eta bestelako entitate Leitza eta Aresokoak izan dira; gainontzeko 19ak, Goizueta eta Aranoakoak. Ekainaren 22an ospatu zen ekitaldian Jaione Olazabal aresoarra izan genuen aurkezle. Lehenik eta behin, Jarraipen Batzordearen izenean Mikel Illarregik hitz egin zuen. Hona bere hitzak: *Arratsalde on guztioi. Hainbat eta hainbat aldiz entzun dugu eta entzuten dugu EUSKARA polita dela, edo zeinen soinu polita duen EUSKARAK eta baita, maite dugula ere. Baina EUSKARAK eta beste edozein hizkuntzak ere, maitatzeaz gain erabiltzea behar du. Ez du polita izan beharrik, hizkuntza solas egiteko dugun tresna da, komunikatzeko behar dugun tresna. Egunero geure bizitzan, etxean, eskolan, lanean, dendan, Herriko etxean, Osasun etxean eta nahi dugun eta hizkuntza komunikatzeko behar dugun leku guztietan geure nahiak, desioak, penak, gogoak, ilusioak, minak eta abar adierazteko dugun tresna baita hizkuntza, eta geure kasuan EUSKARA. Euskararen normalizazioan asko dagoela egiteko gaineratu zuen, eta, bide horretan geroz eta eragile gehiago izan, orduan eta bide errazagoa izango dela adierazi zuen.*

Bestalde, Mikel Baraibarrek, Aresoko alkateak, udala euskararekin konprometitu dela azpimarratu zuen. Ildo horretan herritarren hikuntz-eskubideak errespetatu daitezzen Aresoko udalan idazkari euskal-

duna dutela adierazi zuen. Bide batetik, Zirutagiridunak zororindu zituen.

Azkenik, Xabier Mendiguenek hitz egin zuen. Hona hemen bere hitzak: *Euskara gure eguzkia da. Gure unibertsoaren erdian dagoen izarra, eta zabalitzen dituen printzak zuen konpromisoek eragiten dituzte. Izar handi hau ez da ezer ere ez, gaur hemen bildutakoon ekarpenik gabe. Gu gara, guztiok elkarrekin, euskararen eguzkia pizten dugunok. Hau da hain zuzen aurrekoa astean aurkeztu genuen Bai Euskarari Ziurtagiriaren Elkarte berriaren ardatza: **elkarlana**. Euskara guztiona da eta horregatik, arlo sozioekonomikoaren euskalduntzeak behar duen bultzada izateko agente guztien partehartzea behar da: euskalgintza, Ziurtagiria duzenok, sindikatuak, enpresariak, administrazioa. Ziurtagiriaren elkarte berria elkarlanean oinarritzen da, hori baita arrakastarako giltzarria. Ziurtagiri hau guztiona da, guztiok batera emango dugu aurrerapauso hau, batera konprometitzen ari gara. Bizitzan aurrera egiteko modua **konpromisoa da**, konpromisorik gabe Abel Barriola ez litzateke bere lesiotik sendatu eta buruzburuko txapelketaren finalera iritsiko. Konpromisorik gabe euskararen normalizazioa irudikatzen duen eguzkia itzaltzeaz gain euskaldunon planeta iluntasunean sartuko litzateke. Baina zuen eta aurrerago ere gehituko direnen*

ekarpenarekin gure hizkuntzaren geroa argitzen ari da.

Tartean, Leitzako abesbatzak modu zoragarrian kantatu zituzten abestiez gozatu ahal izan genuen, Gaztetxekoek utzitako eta prestatutako soinu-aparatuei esker. Ekitaldiaren ondotik, otamena izan genuen, eta Leitzako txistulariek giro ederra jarri zuten.

Poztekoa da, lau urteren ondoren Bai Euskarari Ziurtagiri kopuruak egonkortasun bat lortzeaz gain, Leitzaldeko eragileak lan ildo bati eutsi eta beren elkarre, komertzio eta enpresetan Euskara normaltasunez erabiltzeko bide berriak irekitzen ari direla.

Leitzaldeko errealitate linguistiko eta kulturala urte askotan zehar erakunde, eragile eta herritarrek egindako lanaren ondorioa da. Denbora luzean zehar egindako lanari jarraiki, Bai Euskarari Ziurtagiriak, jorratutako bideak zein diren identifikatu eta hortik aurrera joateko proposamenak eskeintzen ditu.

Honela elkarte, komertzio eta enpresa bakoitzak bere funtzionamentu eta baldintzen arabera urtetik urtera euskararen erabilera normalizatzeko helburuak erabakitzen ditu.

Azpimarragarria da norberak irekitako bideak gainerakoentzat ere erabilgarri izaten direla eta aurten lan politikak eta interesgarriak ikusteko aukera izan dugu: Idatziz eta ahozko komunikazioan euskaraz aritzen diren elkarteak, lanean euskara oinarri bezela hartuz bezeroen arabera publizitatea ere euskaraz edo elebitan egiten duten enpresak, konpromisoa bera ikaste-txean parte hartzen duten eragile guztien-gana komunikatu eta ailegatu arazteko ekitaldi eta lanak, administrazioari zerbitzuak eta komunikazioak gutxienez euskaraz izateko egindako eskariak...

Zorionak beraz orain arte egindako guztiagatik, zuetako bakoitza sortzen ari zaren posibilitateengatik eta euskararen inguruan elkarlanerako irikitzen ari zaren bideengatik.



Bai Euskarari Ziurtagiria 2006 (Areso – Leitza)

- Amazabal BHI
- Amazabal Guraso Elkartea
- Arakindegi Jatetxea
- Ardotegia Lenitz
- Aresoko Eskola
- Aresoko Guraso Elkartea
- Asketa Abesbatza
- Asociación Etxetxuria
- Aurrera Kirol Elkartea
- Biok Jantziak
- "Denok Bat" Guraso Elkartea
- Dia Supermerkatua
- Erbiti Farmazia
- Erleta Haur eta Lehen Hezkuntzako Ikastetxe Publikoa
- Etxe-Tresnak S.L.
- Gabriel Saralegi
- Garziarena Arraindegia
- Gaztañaga Taberna
- Gaztelu Iturgintza
- Gerardo Arrupea – Mapfre
- Goiko lorezaintza
- Gorritz Arkume eta Gazta
- Gorritz S.L.
- Haur Eskola - Leitza
- José Larrañaga S.A.
- Kapritxo
- Karrape Irratia
- Kultur Taldea - Areso
- Kultur Taldea - Leitza
- Larrea Elkartea
- Leitza Garajea
- Leitzako Jubilatuen Elkartea
- Leiza Mandriladora
- Lizarraga Harategia
- M. Plaza Tuñon Farmazia
- Maddalen Lazkano
- Mendibil Mendi Taldea
- Musunzar Ostatua
- Pake - Toki Elkartea
- Peritza Taberna
- Perurena Harategia
- Ramon Iizarraga – ALIPROX
- Sagasti Jatetxea
- Saharar Herriarekin Elkartasuna Taldea
- SDCR Guratz Mendi
- Talotegia
- Torrea Gastronomía eta Kultur Elkartea
- Urkiola Harategia
- Usoa Ehiztarien Elkartea
- Zortziko Labetxea
- Zurlan Zurgindegia

Biziraupen kontua



Berotegi efektua fenomeno naturala da eta beharrezkoa bizitzarako. Atmosferako gasek astiro-astiro itzultzen dute eguzki izpien energia eta horrela, tenperatura ez da jaisten. Azken finean, **Berotegi efektua** klima berotzen duen prozesu natural bat da, Lurraren hartu-eman erradioaktiboan parte hartzen duena. Atmosferan dauden berotegi efektu gasek (BEG) sortzen dute, batez ere ur lurrinak (eragin gehien duena), karbono dioxidoa CO_2 eta metanoa CH_4 .

Efektu hau, nekazaritzan eta lora-zaintzan erabiltzen diren berotegien

analogiaz izendatu da. Hauek espazio itxi batzuk dira, alde bat edo gehiago beira edo plastiko gardenezkoak direnak, eguzkiaren beroa igarotzen utziz eta barnean gordez landareek mikro-klima onuragarri batez goza dezaten.

Azken mende honetan anhidrido karbonikoa eta berotegi efektua eragiten duten beste gas batzuk ugaltzen joan dira gizakion jardueraren dela eta. Arazoa XX. mende hasieran hasi zen landaketarako lur gehiago izateko landaredi-sail handiak erre zirenean. Azken hamarraldietan arazoa larritu egin da petrolioa, ikatza eta gas naturala bezalako errekin fo-

silak gehiegi erabiltzeagatik eta prozesu industrialengatik.

Gizakiak ingurunean egiten duen presioa pixkanaka-pixkanaka handitzen joan da mendeetan zehar. Baina azken hirurogei urteetan izugarri areagotu da eta ingurumenak aldi horretan jasan duen eragina gizakiak aurreko garai gutzietan eragin duena baino askoz handiagoa izan da.

BEROTEGI EFEKTU GASAK (BEG)

Efektu honen eragile nagusiak BEGak dira:

- Ur lurrina = H_2O (55 %)



- Karbono dioxidoa = CO_2 (39 %)

- Ozonoa = O_3 (2 %)

Eta beste hainbat proportzio txikiagoan:

- Metanoa = CH_4 (2 %)

- Oxido nitrosoa = N_2O (2 %)

- Sufre hexafluoruroa = SF_6

- CFC gasak

Karbono dioxidoaren batez besteko kontzentrazioa izugarri handitu da. Iraultza Industrialaren garaian milioiko 275ekoa zen eta 1996an, aldiz, 361ekoa. Metano maila bikoiztu egin da azken 100 urteotan. 1800en gutxi gorabehera milioiko 0,8koa zen kontzentrazioa eta 1992an, aldiz, milioiko 17koa. Dinitrogeno oxido kopurua %0,25 gehitzen da

urtean. Industriaurreko garaian gutxi gorabehera milioiko 0,275ekoa zen, eta 1992an, berriz, milioiko 0,310ekoa.

Atmosferako behe-geruzetako gehiegizko ozonoak berotegi-efektua areagotu egiten du, baina goiko geruzetako ozonoak Eguzkiaren erradiazio kaltegarrietatik babestu egiten gaitu. Ozonoa ezinbestekoa da 15 km-tik gora eta oso kaltegarria hortik behera.

Munduko eztanda demografikoak eta industriaren aurrerakadak eguratsean pilotzen diren gai kutsatzaileak gehitzea eragin dute. Gehitze horrekin batera, heriotza tasa eta gaixotze tasa ere ikaragarri handitu dira eta froga garbiak daude atmosferaren kutsadurak gizakion osasunari kalte egiten diola adierazteko.

Herrialde industrializatu gehienek, onar daitezkeen kontzentrazio balio maximoak ezarri dituzte atmosferaren kutsatzaile nagusientzat. Horretarako, kutsadurak izan ditzakeen eraginei buruzko azterketa teoriko eta praktikoetan oinarritu dira.

Azken mende honetan munduko tenperaturak $0,6^\circ\text{C}$ igo dira, gutxi gorabehera, Lurraren berotze fenomeno delata eta. Orain arte errudun bakartzat ozono-geruza gutxitzeak sortu duen berotegi-efektua jo da. Baina atmosfera-fisikari batzuk errudun berri bat aurkitu dute, askoz boteretsuagoa: Eguzkia. Danimarkako E. Christensen eta K. Lassen ikertzaileen ustez berotegi-efektua Eguzkiaren eraginarene ondoan ia arbuiagarria da, eta beraz Lurraren berotze-efektua Eguzkiaren jarduera-zikloekin erabat lotuta dago. Eguzkiak jarduera handiko uneak izaten ditu periodikoki eta, ondorioz, partikula-kopuru handiago igortzen du espaziora, Eguzki-haizea bezala ezagutzen den fenomeno sortuz. Eguzki-haizea handiago denean Lurrera iristen diren izpi kosmikoak gutxitu egiten dira, eta ikertzaileen ustez, honek atmosferan hodei gutxiago eratzea ekartzen du. Orain ikerketak izpi kosmikoek atmosferan duten eragina egiaztatzen zuzendu dira.

INGURUMENARI BURUZKO HITZARMENAK

1972an ingurumena interes handiko gaia bihurtu zen Nazio Batuentzat. Urte horretan Giza Ingurumenari buruzko Nazio Batuen Konferentzia egin zen Stockholmen. Baina ondorengo urteetan ingurumena garapen-planetan sartzeko ekimenak ez ziren oso urruti iritsi. Ingurumenak kezka sortzen zuen baina ez zen lehen mailako interes politikoa eragiten zuen gaia.

Stockholmeko Konferentziak 26 printzipio eta gomendiozko 109 ekintza zituen plan bat ezarri zituen bere Deklarazioan. Helburu zehatz batzuk finkatu ziren: baleen arrantza komertzialari hamar urteko luzamendua ematea, 1975etik aurrera itsasoan petrolioia nahita botatzearen aurkako neurriak hartzea eta 1975erako energiaren erabilerei buruzko txostena egitea.

Giza Ingurumeari eta bere Printzipioei buruzko Stockholmeko Deklarazioak ingurumenarekin zerikusia zuten nazioarteko gaietarako lehenengo atala osatu zuen.

Nazio Batuek Ingurumen eta Garapenari buruzko Nazioarteko Batzordea sortu zutenean, 1983an, argi zegoen ingurumena babestea garrantzi handiko kontua izango zela denontzat.

1997an, berotegi efektua eragiten zuten gasen kontzentrazio kaltegarriak klima arriskuan jar zezakeela ohartu ondoren, nazioarteko beste batzar bat egitea erabaki zen; oraingo honetan klima aldaketaren arazoa aztertu zuten. Batzar horri Kiotoko Protokoloa deitu zitzaion, Japoniako hiri horretan sinatu baitzen hitzarmena.

Kiotoko Protokoloaren helburu nagusia berotegi efektua eragiten zuten gasak 2008tik 2012ra bitartean %5,2 murriztea zen, gas horiek 1990ean zuten isurtze-maila erreferentziatzat hartuta. Herrialde askok egin zuten bat protokoloarekin, eta ondorengo urteetan berresteko konpromisoa hartu zuten.

Industrializatutako herrialde handiak

berrespena atzeratzen hasi ziren, isurketak neurri horretan murrizteak industriei gastu handiak egitea eskatzen ziela eta euren garapena arriskuan jartzen zuela argudiatuz. Hala ere, pixkanaka-pixkanaka, herrialde handiek hitzarmena berretsi zuten edo horretarako konpromiso sendoa hartu zuten.

Herrialde industrializatuek protokoloa berrestea onar zezaten, neurri handi batean aldatu behar izan zen edukia. Arau hausleentzako zigorrak ezabatu ziren eta batik bat, gasen isurketa murrizteko %5,2ko portzentaia nabarmen jaitsi zen, %1,8ra hain zuzen. Horri esker, Japoniak, Kanadak, Errusiak eta Australiak hitzarmena berretsi zuten. Kontuan hartu behar da berotegi efektua eragiten duten gas-isurketen ia %25 herrialde horietan egiten direla.

Nicholas Stern ikertzaileak, Britania Handiko Erresumak eskatuta, berotegi efektuan eragiten duten gasen ondorioz mundu zabalean gertatzen ari den klima aldaketak ekar ditzakeen ondorioak aztertu ditu, bereziki ikuspegi ekonomiko-tik. Aurretik egindako txostenetan oinarrituta ondorio hauek atera ditu: gero eta tenperatura altuagoak, ur eskasia leku batzuetan, lehortea besteetan, goseteak eta beren etxetik ihes egin beharrean egongo diren milioika lagun.

Nicholas Stern ekonomiaren alorrean da bereziki ezaguna. Besteak beste, Munduko Bankuarentzat lanean ibilitakoa da. Ekonomikoki klima aldaketaren aurka ezer egin gabe egoteak, ondorio ekonomiko lazarriak ekarriko dituela dio. Orain klima aldaketaren kontrako neurriak ez hartzeak galera ekonomiko handiak ekar ditzake datozen hamarkadetan. Sternaren arabera, atzera bueltarik gabeko prozesu bat abian da ja Lurrean. Urtean BPG Barne Produktu Gordinarren %5 galtzea ekar dezake prozesu horrek kasurik samurrenean, eta %20 latzenez. Balizko galera ekonomiko horiei aurre egiteko, aski litzateke, Sternaren arabera, urtean BPGaren %1 klima alda-



ketaren kontrako neurriak hartzea. Horretarako, ordea, herrialde guztiek batera jokatu behar dutela nabarmendu du.

Berotegi efektuaren kasuan ere, azterketa ekonomikoa egin du Sternek; kontrako neurriak hartu ezean, isurtzen den CO2 tonako, kalte ekonomiko handia egiten da: gutxienez 85 dolarrekoa. Neurri egokiak hartzen badira galera CO2 tonako 85 dolarrekoa izan beharrean 25 dolarrekoa izan daitekeela ondorioztatu du.

Sternek egoera horri aurre egiteko neurriak ere proposatu ditu. Batetik, zergen bidez berotegi efektua eragiten duten gasen murrizketa bilatu behar da. Bestetik, teknologia berriak sustatu behar dira, energia iturri gero eta garbiagoak bilatze aldera. Era berean, basoen soiltzearen kontrako neurri eraginkorrak hartu behar dira. Alde horretatik datozen 10-20 urteotan hartzen diren neurriak erabakigarriak izango direla dio txostenak. Prozesu horretan gizarte osoak arazoak duen garrantziaz ondo jabetu behar

duela dio, eta informazio politika eraginkorrak jarri behar direla martxan.

PARKE NATURALAK ETA BASOAK

Gaur egun, Euskadiko Naturagune Babestuen Sarean 37 gunere berezi daude. Horiek guztiak Parke Natural, Biotipo Babestu eta Zuhaitz Berezi bezala sailkatuta daude.

- Parke Naturalak: Euskal Autonomia Erkidegoan 7 Parke Natural daude. Aiarako Harria, Aralar, Gorbeia, Izki, Pagotta, Urkiola eta Valderejo dira horiek.
- Biotipo babestuak: Euskadik 5 Biotipo Babestu ditu. Araban bat dago, bi Bizkaian eta beste bi Gipuzkoan.
- Zuhaitz bereziak: zuhaitz bakoitzaren berezitasunak kontuan izanda Euskal Autonomia Erkidegoan arreta berezia merezi duten Zuhaitz Bereziak 25 dira.

Aralarko lehenaldiko sustraiak Neolitoko artzaintzan daude. Hamaikatxo hilobi monumentuk eutsi diote denboraren iraganari, hastapenetako gizakiek eraldatu zuten haren antz-antzeko natur ingurunean: kareharrizko harkaitz



hauetan zeuden basoak soiltzeari esker zabalduak larre zabal-zabaletan, alegia.

Izan, abeltzaintza da egun ere bertako baserri gehienek oinarri ekonomikoa, industrietatik datozen irabaziak kontuan hartu gabe. Ganaduetan, ukuiluko esnetarako behia da garrantzi handienekoa, eta ondotik latxa arrazako ardia datorio. Artzaintza mota hori transhumantzia ziharduen kultura osoarekin dago loturik, mendilerroaren izena dararamaten gazta preziatuak frogatzen duen bezala. Maiatzean hasita, artaldeak Mendikatearen goialdeetara igo, eta bertan ibiltzen dira udazkena burutu arte. Urri aldera, artzain eta artaldeak negutia emateko ohiko tokietara jaitsiko dira, hau da, inguruko herrietako behe aldeetara edo Gipuzkoako bazter urrunagoetara.

Uda partean artzainak Enrio-Aralar Partzuergoaren lurretako larre publikoetan dauden etxoletan egiten du bizitza.

Bestetik, Aralarko ohiko paisaiaren osagai ezagunenak ez badira ere, Parke-

ko azaleraren %52 okupatzen duten pagadiak eta zuhaitz sailak ere bere nortasunaren bereizgarriak ditu. Bi zona ditugu nabarmentzekoak: Ataungo Domoaren barrualdea, hazkuntza ertaineko masek okupatua, batik bat, eta Aralarko hegoaldean, Balankalekutik Errenagaraino hedatzen den pagadia, Euskal Herriko pagadi tantaierik hoberenetakoa delako. Nabarmen dezagun, bide batez, zuhaitz formazio horien interes bizia, bai bertako floraren arrarotasun eta berezitasunagatik, baita harritzko hegietan flora horrek lurra babesten duelako ere.

Tradizioz, Gipuzkoa ez ezik, Euskal Herri osoko mendizaleen erreferentziagune nagusietakoa izan da Aralar aspalitik. Txindoki, Ganbo, Putterri, Autza, Irumugarrieta eta gainontzeko gailurren erakargarritasuna, nafar parteko pagadia, santutegia eta Gipuzkoa zein Nafarroako gertuko hiriguneetatik mendigu-neak daukan kokapen estrategikoa direla medio, mendilerro hau bisitari gehien erakarri dituenetako bat bilakatu da. Parkerako sarbideen antolamenduak erabilera publikoko bi alderdi nagusi egituratu ditu: Lizarrustiko Harrera Gunearen inguruan eratutako Ataungo alderdia, Lazkaoko errepidetik eta Lizarrusti mendatetik eskuragarri, eta Parke-

aren gainontzekoak, Ordizia - Alegia errepidetik eskuragarri. Parkerako ateak Abaltzisketa - Larraitz eta Amezketa - San Martin multzoak lirateke.

ONDARE ARKEOLOGIKO ETA ARKITEKTONIKOA

Hamaika mito eta legendak dute Aralar sorleku. San Migel aingerua (Teodosio Goñikoari VIII. mendean agertu omen zitzaiona), Mariren Txindokiko harpea, Putterriko Dama, jentilak eta Kixmiren etorrera... asko dira mendilerro honetan kokaturiko episodio mitologiko ezagunak. Jose Migel Barandiaran (1889-1991) ataundarrak legenda horietako asko jaso eta biltzeaz gainera, Aralarko aztarnategi arkeologikoak ikertu zituen. Aipa dezagun, bide batez, bertan 30 trikuharri edo dolmen, 15 tumulu, 7 monolito, 2 cromlech eta 13 kobazulo daudela katalogatuak.

Garai historikoetan, antzinako Munoa galtzadak eta Ausoko gazteluaren hondakinek merkataritzaz jantzi eta gerrak astindutako iraganaldien aztarnak erakusten dizkigute. Arritzagako meategietako hondakinek eta Lizarrustiko baso-trenak, errota eta burdinolek, denek gogorarazten digute duela hainbat urte Parkean pil-pilean zegoen industri jarduera, aizkolari, ikazkin eta artzainen koadrilek mendian hilabete asko ematen zituzten garai haietan.

Parkea inguratzen duten landa guneetan interes biziko arkitektura zibil (baserriak, dorretxeak, oinetxeak) eta erlijioso (ermita eta elizak) ikus daiteke. Azken horietako bat, nabarmenena agian, mendizerrako bihotzean dagoen San Migel ermita da. Berez Nafarroan dagoen arren, abuztuko bigarren igandean San Migelen irudia Igaratzaraino (Gipuzkoa) eraman ohi da erromerian.

Oharra: informazio iturriak: Elhuyarren weborria, wikipedia entziklopedia, Argia aldizkariaren weborria eta Plazaolaren weborria.

CEDERNA-GARALUR Nafarroako mendialdeko garapen agenzia da. Zerbitzu desberdinak eskaintzen ditu, denak landa garapeneraren inguruan. Informazio gehiago nahi ezkerreko web orria bisita dezakezu.

CEDERNA-GARALUR ek eskaintzen dituen zerbitzuen artean, Lan Orientazio Zerbitzua ere badago. Zerbitzu honen *helburu orokorra* Mendialdeko giza baliabideak eta enpresen beharrak doitzea da. Hau lortzeko enplegua lantzen dugu ahalik eta alor gehienetan. 4 alor bereizten ditugu:

- ERABILTZAILEEI ZUZENDURIKO ZERBITZUAK:
- HERRI ERAKUNDEEI ZUZENDUTAKO ZERBITZUAK:
- EMPRESEI ZUZENDUTAKO ZERBITZUAK
- LAN MERKATUAREKIN ERLAZIONATUTAKO TAILERRAK:

ORDUTEGIA ETA ARRETA

Agentzia apirilaz geroztik ari da lanean eskualdean. Irailetik aurrera, berriz, jarduera guztia abian jarrita, eta egutegia antolatuta, publikoari eta erakundeei arreta egiten die egun eta ordu hauetan:

- **Larraun:** astelehena eta asteartea. Plazaolaren geltokia, 31870 Lekunberri. Tel: 948 537 034. Faxe: 948 537033
- **Ultzama:** asteazkena. Ultzamako Udaletxea, San Pedro kalea 11, Larrainzar. Tel: 948 306 699
- **Leitzar:** osteguna eta ostirala. Leitzako Udaletxea. Elbarren kalea 1, Leitza. Tel: 948 61 06 76

Kontsultei arreta egiteko, aldeztu aurretik ordua eskatu beharko da telefono zenbaki honetara deituta: 617 609328.

Informazio gehiago nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan: **Elena Irigoien (617 609328)**, edo **Marian Serrano (948 207063)**.

Cederna Garalurrek egindako erreportajea.

Europatik Nafarroako mendialdera "2007, aukera berdintasunaren urte europarra"

2007. urtea pertsona guztientzako aukera-berdintasunaren urte europarra da. "Aniztasunaren alde, diskriminazioaren kontra" ikurritzak oinarritzako bi kontzeptu jasotzen ditu: gure gizartean, oraindik ere, zenbait pertsonarekiko diskriminazioak indarrean dirau; besteak beste, genero, arraza, etnia, erlijio, minusbaliotasun, adin, nahiz sexu-joerak "arrazo" hartuta. Gure iritziz, zilegi eta bidezkoak zaizkigu horiek

guztiak gure ekintzak justifikatzeko. Europako Batasunak (EB) hiru lehentasun finkatu ditu: hiritarrei beren

eskubideen berri ematea; emakumeen eta gizonen aukera-berdintasuna sustatzea, bai lanean, bai enplegua lortzeko, hezkuntzari, zainketei... dagokionean; eta, aniztasunaren onurak nabarmentzea.

Hiru lehentasun horiek lau puntu garrantzitsutan hartu behar dira kontuan:

- a. **ESKUBIDEAK.** Berdintasunerako eta diskriminaziorik ez pairatzeko eskubidearen gain kontzientzia sortu. Urte europarrak mezu honi garrantzi berezia ematen dio: "Pertsona orok du, salbuespenik gabe, tratu berdina jasotzeko eskubidea, eta diskriminazioa pairatzen duten hiritarrek beren eskubideak eta gai horri buruz Europan dagoen legeria hobeto ezagutzea ahalbidetu beharko du".
- b. **ORDEZKARITZA.** Diskriminazioa pairatzen duten taldeek gizartean parte hartzeko aukerak areagotzeko moduei buruzko eztabaida bultzatu, eta gizonen eta emakumeen parte-hartze orekatua sustatu.
- c. **AINTZAT HARTZEA.** Aniztasuna eta berdintasuna erraztu eta goretu. Sexua, jatorri etniko edo arrazakoa, erlijioa, uste sendoak, minusbaliotasuna... edozein dela ere, pertsonak gi-



Areso industrialdearen sarrera.

zarte osoari egin diezaioketen ekarpen positiboa azpimarratuko da, eta aniztasunak dituen onurak bereziki nabarmenduko dira.

d. **ERRESPECTUA.** Kohesio-maila handiagoa izango duen gizartea bultzatuko da. Urte europarrak estereotipoak, aurreiritziak eta indarkeria ezabatzeak, gizarteko kide guztien artean (gazteen artean bereziki) harreman onak sustatzeak, eta diskriminazioaren kontrako eta aukeraberdintasunaren aldeko baloreak bultzatzeak eta zabaltzeak duen garrantziaren inguruko kontzientzia areagotzea bilatzen du.

Erabakia diskriminazioaren kontrako eta guztientzako aukera-berdintasunaren aldeko Estrategia Markoarekin bat dator, Europako Batzordeak COM

(2005) 224 azkena Dokumentuan jakitera emana.

Berdintasuna Europar Batasunaren, Espainiako Estatuaren, Autonomia Erkidegoen eta Udalen Politiken helburuetako bat da. Horregatik, eta Europak emakumeen eta gizonen aukera-berdintasunaren arloan bultzatzen dituen puntu garrantzitsuak aurkeztuta, ondoren Nafarroako Foru Erkidegoak arlo horretan zehaztutako jardunbidearen hainbat lan-esparru aurkeztuko ditugu.

NAFARROAKO FORU ERKIDEGOKO EMAKUMEEN ETA GIZONEN AUKERA BERDINTASUNERAKO I. PLANA, 2006-2010.

Berdintasunerako Plana hamabi arlotan banatuta dago; horietatik bi zeharkakoak dira, eta hamar berariazko esku-hartzeak.

ZEHARKAKO ARLOAK

1. Aukera Berdintasunaren printzipioa administrazio publikoetan txertatu.
2. Herritarrak informatu, hiritarrekiko komunikazioa eta sentsibilizazioa garatu.

BERARIAZKO ARLOAK

1. Ekonomi sustapena, enplegua eta presuntakuntza.
2. Lurraldearen antolakuntza eta etxebizitza.
3. Hezkuntza eta promozioa.
4. Osasuna eta gizarte-ongizatea.
5. Kultura, jarduera fisikoa eta kirol-jarduera, aisia eta denbora libre.
6. Emakumeak landa-eremuan.
7. Familia, bizitza pertsonala eta lan-tartzea, eta erantzukidetasuna.
8. Emakumeen jabeakuntza eta parte-hartze sozial eta politikoa.

9. Emakumeen aurkako indarkeria.

10. Garapenerako lankidetzak.

Planak proposatzen dituen arlo guztietatik, Nafarroako Mendialdearen Landa Garapenerako Zentro CEDERNA-GARALUR Elkarteari zuzenean eragiten dioten 3 azpimarratuko ditugu.

1. Emakumeak landa-eremuan.

2. Familia, bizitza pertsonala eta lana uztartzea, eta erantzukidetasuna.

3. Ekonomi sustapena, enplegua eta prestakuntza.

1. EMAKUMEAK LANDA-EREMUAN

Emakumeen eta gizonen aukera-berdintasuna eraikitzeko, bide horretan aitzina egite aldera hartuko diren erabakietan lehentasunezkoztat jo behar da landaeremuetako emakumeek duten egoera. Azken urteotan nolabaiteko bilakaera egonatik, gaur egun, oraindik ere, berdintasuneranzko eta beren esku-bideak aintzat hartzeranzko aurrerapauso hori ez da gauzatu, edo oso motel gauzatzen ari da; batez ere, landa-eremuko emakume-multzo oso zehatz batean. Hauexek dira talde horren ezaugarriak: 45 urtez gorakoak, ezkonduak, seme-alabekin, oinarrizko eta lehen-mailako ikasketak dituztenak, etxeko eta baserriko lanetan dihardutenak, lurra- ren jabe ez direnak, eta soldatarik ez dutenak.

Nafarroako landa-eremuan emakumeak gizonetik atzerago daude hezkuntzaauketan, gazteek beren herrietatik atera behar izaten dute ikastera, osasunerbitzuak eta kultura jasotzeko, eta/edo lan ordaindua izateko.

Nafarroako Foru Erkidegoko Aukera Berdintasunerako I. Planean bultzatzen diren helburuak landa-eremuetako emakumeen arloan:

1. Nafarroako gizarteari nafar emakumeek landa-eremuan bizi duten egoeraren berri eman, eta horren inguruan sensibilizatu.

2. Emakumeak Nafarroako Foru Erkidegoko alderdi politikoetan, sindikaletan, profesionaletan eta gizarte-mailakoetan egotea eta horietan parte hartzea sustatu.

3. Emakumeak lan-merkatuan sartzea bultzatu, eta landa-eremuaren ekonomia garapenean egiten duten ekarpena aitortu.

4. Landa-eremuko zerbitzuak hobetu.

Nafar Pirinioetan, "Me nombras luego existo" ikurrizarekin, 2006ko azaroaren 4an Pirinioetako Emakumeen VI. Topaketa antolatu zuten Erronkarin eta Izaban hainbat emakume-taldek; besteak beste, Gaztelu emakume-taldeak, Aizpea, Laurentxi, Lakorri eta Jaurrietako Virgen de la Blanca emakumeen elkarteak, eta Erronkari eta Zaraitzuko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek. Topaketan hainbat lan-talde osatu ziren hizkuntzaren erabilpen sexistari buruz hausnartzeko: "Hizkuntza berdintasunerako tresna da": errealitate bihurtzeko erabilpen-eskuliburua.

Eskuliburuaren hainbat gomendio:

- Erabili generikoak; esate baterako "infancia" "niños y niñas"en ordez, edo "alumnado" "alumnos y alumnas"en ordez.
- Aukeratu izen abstraktoak: "alcaldía" "alcalde o alcaldesa"ren ordez.
- Forma bikoitzak erabili: "empresario-empresaria", eta abar.⁴

Herriek aurrera egin dezaten, landaeremuetako emakumeentzat guztiz garrantzitsua da garraio publikoa hobetzea, eta haurtzaindegi gehiago irekitzea. Gazteenen iritziz, asteburuetan oso urria da garraio-zerbitzu publikoa, eta semealabak eskola-adinean dituzten emakumeek, berriz, derrigorrezkoa ez den hezkuntza-zikloetarako garraiorik ez egotea kritikatzeko dute. Halaber, kezka nabarmena sortzen du adin nagusiko jende askok batetik bestera beren kasa joateko modurik ez izateak.

Halakoetan, zerbitzuak guztiz eskasak dira.

Emakumeek helduei zuzendutako aisialdi-jarduerak programatuak eskatzen dituzte: gimnasia, hitzaldiak, tailerrak, eta abar. Zerbitzuak eta ekipamenduak hobetu badira ere, landa-eremuetako emakumeek aipatu zerbitzuak eta ekipamenduak finkatzea eta hobetzea nahi dute, landaeremuak autonomia irabaz dezan, eta ingurunean biztanleria finka dadin.

2. FAMILIA, BIZITZA PERTSONALA ETA LANA UZTARTZEA, ETA ERANTZUKIDETASUNA

Emakumeen eta gizonen aukera-berdintasuna eraikitzeko oinarrizko ardatza.

Planak arlo honetan erdietsi nahi dituen helburuak:

1. Nafarroako herritarrak etxeko lanetan eta mendekotasuna duten pertsonak zaintzen emakumeek eta gizonen duten erantzukidetasunaren inguruan sensibilizatzea.
2. Enplegu-egiturak eta denboren, lan-jardueraren eta parte-hartze soziopolitikoaren antolaketa pertsonen premietara egokitzea.
3. Komunitateak zerbitzu-sare anitza eta malgua izatea bermatzea.
4. Bizitza pribatua eta familiarra zaintzearen eta kudeatzearen ondorioz emakumeek eta gizonen izaten dituzten erantzukizunen banaketa desberdinak sortzen dituen errealitatea, osasunaren eta lana lortzearen edo lanbide-promozioaren gaineko ondorio ekonomikoak aztertzea eta horren berri zabaltzea.⁶

Lana, bizitza pertsonala eta familia uztartzera bidertutako Planeko jardueretako bat "Emakumeek eta gizonen lana, bizitza pertsonala eta familia uztartzeko tokian tokiko Itunak" izeneko programa da: Nafarroako Mendialdean



Goizuetako maketa.

orain arte 16 udal eta mankomunitatek sinatu dute aipatu ituna; horien artean, Altsasuko Udalak, Bortzirietako Mankomunitateak eta Zangozako Udalak. Programa Europako gizarte Funtzak (Nafarroarako "3 helburua" programa eragilearen barnean -2000/2006) eta Nafarroako Gobernuak (Nafarroako Berdintasunerako Institutuaren bitartez) finantzatu dute: % 50na.

Tokian tokiko Itunak administrazioen eta lurraldeko ekonomi eta gizarte-eragileen arteko tokian tokiko adostasuna adierazten du.

ZONAKAKO EKIMENAK

Plan guztiak eraginkorrak dira eta errealitate bihurtzen dira landu beharreko eremura eramaten direnean eta ekintza zehatzak egiten direnean. Nafarroako

Mendialdeko hainbat eskualdetan eta herritan Plana abian paratzearen ondorioz 3 egitasmo garatu dira:

- a) Bortziririak
- b) Zangoza
- c) Altsasu

3. SUSTAPEN EKONOMIKOA, ENPLEGUA ETA PRESTAKUNTZA

Azken urteotan emakumeen eta gizonen arteko aukera-berdintasunean eman den urratsik garrantzitsuenetako bat emakumeak lan-merkatuan txertatzea izan da, nahiz eta arlo horretan berdintasuna lortzeko, enpresek eta bestelako gizarte-eragileek parte hartze zuzena izan behar duten.

Enplegu eta Prestakuntzaren arloan Nafarroako Foru Erkidegoko emakumeen eta gizonen Aukera Berdintasunera-

ko I. Planaren helburuak honako hauek dira:

1. Emakumeek eta gizonen ekonomiarekiko eta lanarekiko dituzten desberdintasunak ezagutzea eta bistaratzea.
2. Enplegu-politikak eta zerbitzuak aukera-berdintasunaren printzipiora egokitzea.
3. Nafarroako emakumeei lan egonkorerrako sarbidea bultzatu, berdintasunean.
4. Emakumeak lan-merkatuan egotea eta txertatzea bultzatzea.
5. Genero-ikuspegia negoziazio-kolektiboan txertatzea.

Prestakuntza eta enplegua lantzeko ekimen eredugarria dugu:

EMPLÉATE "Zure proiektua zure enpresa da" "Proiektuaren xedea beren negozio ideiak abian paratzen zailtasun

AUKERA-BERDINTASUNAREN ARLOAN NAFARROAKO FORU ERKIDEGOAN ZABALIK DAUDEN LAGUNTZAK ETA SUBENTZIOAK

Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzako dirulaguntzen deialdia (2007); betiere, baliabide ekonomikorik ez dutela eta lanpostu bat lortzeko zailtasun bereziak dituztela frogatzen badute. www.cfnavarra.es/bon/071/F0620001.htm Non argitaratua: NAO 01. zk., 2007ko urtarrilaren 1ekoa (astelehena).

Epe-amaiera: 2007/12/31

“Hiru urtetik beherako haurrak zaintzaileen etxean zaintzeko zerbitzua” izeneko lana eta familia uztartzeko baliabidearen titularrak diren pertsona juridikoei 2007an zehar zuzendutako dirulaguntzak. www.cfnavarra.es/bon/06C/F0618471.htm Non argitaratua: NAO 153. zk., 2006ko abenduaren 22koa (ostirala).

Mendekotasuna duten pertsonen beren bizilekuan bertan zainketa-zerbitzuak lortzeko eta pertsona horiek zaintzen dituzten familiei babes emateko 2007ko dirulaguntzak. www.cfnavarra.es/bon/06C/F0620002.htm

Non argitaratua: NAO 156. zk., 2006ko abenduaren 29koa (ostirala).

WEBGUNEETARAKO estekak:

- “Women in” proiektua: www.fundacionmujeres.es
- Aukera Berdintasunerako Urte Europarrekiko Europar Batasunaren Orria: <http://equality2007.europa.eu>
- Erkidegoaren EQUAL Ekimenaren orria: <http://europa.eu.int/comm/equal>
- Nafarroako Emakumearen Institutua: <http://www.inmujer@cfnavarra.es>
- Gizarte Gaietarako Ministerioa: www.mtas.es/mujer
- Eusko Jauriaritza: www.emakunde.es
- Nazio Batuen Garapen Programako genero eta garapenari buruzko orria: <http://www.sdnf.undp.org/gender>

handien dituzten kolektiboetan izaera sustatzailea eta enpresak sortzeko

gaitasuna bultzatzea da, beren proiektuak errealitate bihurtzeko beharrezkoa duten laguntza emanda. Gure helburuetako batzuk honako hauek dira: beren prestakuntza hobetu, proiektuen inguruko aholkua eman eta jarraipena egin, moldagarritasuna eta aukera-berdintasuna sustatu, eta eratuko diren enpresei finantziario-alternatibak eskaini”.

Kontxi Sansiñena, CEDERNA-GARALUR Elkartearen Enpresak eta Sustatzaileak arloko teknikaria.

Proiektua gure eskualdearen garapenean eta hazkundean inplikata dauden Nafarroako 16 entitatek paratu dute abian; horien artean, CEDERNA-GARALUR Elkarteak. “Empléate” proiektua Erkidegoaren EQUAL Ekimenaren barnea txertatzen da, eta taldeburua Nafarroako Enplegu Zerbitzua da. Europako Gizarte Funtsak eta Nafarroako Gobernuak finantzatzen dute, azken horrek Nafarroako Enplegu

Zerbitzuaren bitartez. Proiektuaren iraupena hiru urtekoa da, 2005-2007.

Barne hartzen dituen kolektiboak:

- Ondorengo egoera hauetako batean dauden emakumeak: 30 urtetik gorakoak eta lan-merkatuan sartu nahi dutenak; 30 urtetik gorakoak eta ezkutuko ekonomian dihardutenak; enplegu egonkorrik ez dutenak, eta mugitzeko aukerarik ez dutenak.
- Etorकिनak.
- Ijitoak.
- Gazteak.
- Kolektibo gutxietsiak (langabezian denbora luze daramatenak, gizarte-bazterkeria pairatzeko arriskua duten eta lan bila dabilzan pertsonak).

www.empleatenavarra.net webguneak proiektu horretan egindako lana jasotzen du, zehatz-mehatz.



Leizako ikuspegia menditik.

Euskararen inguruko berri motzak

Hizkuntzen Jabekuntzari buruzko Nazioarteko V. Kongresua

AEAL (Hizkuntza Jabekuntza Ikasketen elkarte) -k antolatzen duen Hizkuntzen Jabekuntzari buruzko Nazioarteko V. kongresua uztailearen 26tik 28ra bitartean izango da Oviedoko Psikologia fakultatean (Espainia).

Informazio gehiago: <http://www.aeal.eu/index.html>

EEP k eta Euskal Konfederazioak hitzarmena sinatu dute Administrazioan euskara bultzatzeko

Euskararen Erakunde Publikoak eta Euskal Konfederazioak Ipar Euskal Herriko udaletan eta administrazioetan euskararen erabilera sustatzeko hitzarmena sinatu zuten Baionan. Orain arte Euskal Konfederazioak bultzatutako Euskara Herriko Etxeetan planarekin EEP k jarraituko du, herri elkargoe-tako euskara teknikarien bitartez. Dagoeneko lau elkargok hartu dituzte euskara teknikariak. Konfederazioarekin batera aldiz, Ipar Euskal Herriko 42 udalek izenpetu dute euskara sustatzeko akordioa. Euskal Konfederazioak baikortzat jo du orain arte egindako lana baina "neurri konkretuak eskas" direla nabarmendu du. (www..argia.com)

Informazio gehiago: www.argia.com

Behatokiak urteko txostena aurkeztu dio EAĒko Arartekoari

Behatokia Euskal Autonomi Erkidegoko Ararteko Iñigo Larmarekin bildu da hizkuntza-eskubideei buruzko urteko txostenaren ondorioak azaltzeko. (www.erabili.com)

Informazio gehiago: http://www.erabili.com/zer_berri/berriak/1180430442

LanHitz-ek euskara enpresetara zabaltzeko tresna berriak aurkeztu ditu

Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak, LanHitz egitasmoaren baitan, euskara enpresetara zabaltzeko tresna berriak aurkeztu ditu: enpresen hizkuntza-diagnostikorako aplikazioa, agiri-ereduen bankua, CRM "Customer Relationship Management" delakoa eta LanHitz webgunea. (www.erabili.com)

Informazio gehiago: http://www.erabili.com/zer_berri/berriak/1180443427

Ikasleen euskara maila hobetzeko protokoloa HUHEZIn

Ikusita zenbait ikaslek ez dutela euskara maila nahikorik, HUHEZIk (Mondragon nibertsitatearen Humanitate eta Hizkuntza Zientzien Fakultatea) protokolo bat onartu du, ikasle horien hizkuntza maila hobetzeko. Protokoloa datorren 2007-2008 ikasturtean abiatuko da, baina maiatzean eta ekainean proba egingo zaie horrela eskatu duten ikasleei. (www.erabili.com)

Informazio gehiago: http://www.erabili.com/zer_berri/berriak/1180708277

Euskara sustatzeko diru-laguntzak Iparraldean

Ipar Euskal Herrian euskara sustatzeko diru-laguntzen ebazpena aurkeztu zuten ekainaren 6an Baionan, Eusko Jaurlaritzak eta Euskararen Erakunde Publikoak (EEP). (www.erabili.com)

Informazio gehiago: http://www.erabili.com/zer_berri/berriak/1181141900

1,45 milioi euro banatu dituzte Ipar Euskal Herrian euskara sustatzeko

Ipar Euskal Herrian euskara sustatzeko diru laguntzen ebazpena aurkeztu zuten Baionan Eusko Jaurlaritzak eta Euskararen Erakunde Publikoak. Guztira 1,45 milioi euro banatuko dituzte euskalgintzako eragileen artean. EEP k milioi bat euro jarri ditu eta Eusko Jaurlaritzak 450.000 euro. 60 eragilek 82 egitasmo aurkeztu zituzten orotara deialdira baina 43 eragileren 54 egitasmok jasoko dute diru laguntza. Hitzarmen Bereziak lagundu ez zituen hainbat egiturek ere izango dituzte diru laguntzak.

EHUko Master Ofiziala: Hizkuntzaren Azterketa eta Prozesamendua

EHU-n hizkuntzalariak eta ingeniariak formatzen ibili dira 2001. urtetik hizkuntzaren teknologian agente aktiboak izan daitezten. Hasieran Hiztek masterra izan zen (2001-2006), gero HAP doktorego-programa (2004-2007) eta orain master ofizial berrien erronkari ekin die. (www.sustatu.com)

Informazio gehiago: <http://www.sustatu.com/1182950151>

‘EL VERDADERO ORIGEN DE LOS BASKOS: LA PRIMERA HUMANIDAD’ Euskaldunei eta euskarari buruzko liburua aurkeztuko du Ribero Menesesek

Jorge Maria Ribero Meneses filologoak *El verdadero origen de los Baskos: la primera Humanidad* liburua aurkeztuko du Donostian. Euskaldunak Europako biztanlerik zaharrenak direla eta euskara munduko hizkuntzarik zaharrenaren eboluzioaren fruitua dela dio Menesesek liburuan. Horrez gain, mapek eta dokumentuek Euskadi eta Kantabria beti gauza bera izan zirela baieztatzen dutela uste du filologoak. *El verdadero origen de los Baskos: la primera Humanidad* liburuaren aurkezpena Agiñalde kultur elkarteak antolatu du eta ekitaldian, Unescok euskara kontuan izan dezan eskatzeko xedea duen ekimena aurkeztuko du.

Informazio gehiago: www.argia.com

Euskara sustatzeko hitzarmena sinatu dute Haltsuk eta EKE k

Lapurdikoko Haltsu herriko Udalak eta Euskararen Erakunde Publikoak euskara sustatzeko hitzarmena sinatu dute. Akordio horri esker, herritarrei zuzendutako zerbitzu guztietan euskararen presentzia bermatzea onartu du Haltsuko Herriko Etxeak. Jada 42 herrik izenpetu dute gisa horretako hitzarmena. (www.berria.info)

Informazio gehiago:

http://www2.berria.info/testua_ikusi.php?saila=harian&data=2007-06-26&orria=022&kont=007

Lan munduan euskara bultzatzeko web gunea abiatu du Emunek

Emun Kooperatiba Elkarteak web gunea sortu du langile euskaldunei nahiz erdaldunei lanean euskara erabiltzeko lagunduko dieten tresnak eskaintzeko eta lan mundua euskalduntzen lanean ari diren eragileen arteko komunikazioa eta esperientzia trukatu ahal izateko. www.lantalan.com web gunean hiztegiak, terminologia bankuak, euskara zuzentzaile ortografikoak eta dokumentuak euskaraz sortzeko jarraibideak bilduko dituzte, besteak beste. (www.argia.com)

Informazio gehiago: www.lantalan.com

Espainiako Hizkuntz Ofizialen Kontseilua sortu dute

Espainiako Ministroen Kontseiluak Hizkuntz Ofizialen Kontseilua eta Hizkuntz Ofizialetarako Bulegoa sortuko ditu. Errege-dekretuaren bidez sortuko diren bi erakunde horien helburua, hizkuntz ofizial propioa duten erkidegoetako biztanleek Estatuko Administrazio Orokorrearekin duten harremana hizkuntz horretan izateko duten eskubidea bermatzea izango da. Espainiako Gobernuako ministerio guztietako ordezkariak izango dute ordezkarietza bi erakunde berrietan. (www.berria.info)

Informazio gehiago:

http://www.berria.info/testua_ikusi.php?saila=harian&data=2007-07-08&orria=016&kont=903



Euskarazko Komunikazioa eta Hizkuntza Gutxiak, EHUko Master Ofiziala

Euskarazko komunikazioan gertatu den erabateko hazkundeak ekarri dituen erronka eta behar berriei erantzuteko asmoz antolatu da aurkezten dizuegun master hau. Master honekin, egungo euskarazko komunikazioaren diagnostia egin asmo dugu, eskasietan eta premietan sakondu ahal izateko. (www.sustatu.com)

Informazio gehiago: <http://www.sustatu.com/1184054965>

Martxan dira zientzia-dibulgazioko XIV. CAF-Elhuyar sariak

Dibulgazio-artikuluen hiru sari nagusiak eta gazteentzako sari berezia ez ezik, dibulgazio-liburu bat idazteko beka ere emango dute, bosgarren aldiz. (www.sustatu.com)

Informazio gehiago: <http://www.sustatu.com/1180082306>

ONU-k 2008a nazioarteko hizkuntzen urtea izango dela adierazi du

Garrantzi berezia emango zaie munduko 6000 baino gehiagoko hizkuntzei. Neurria bereziki ingelesaren garrantzia gero eta handiagoa nazioarte mailan mantsotzeko hartu da eta beste hizkuntzen lekua handitzeko.

Informazio gehiago:

http://www10.gencat.net/pres_casa_llengues/AppJava/frontend/noticies_detall.jsp?id=106&idioma=1

Basque Research berritua

Elhuyar Fundazioaren Basque Research web guneak diseinu berria eta atal berriak ditu. Web gune berriak AA irisgarritasun-maila lortu du. (www.sustatu.com)

Informazio gehiago: <http://www.sustatu.com/1180968977>

Zer egin dezaket euskararen alde?



Euskara erabili, nonahi eta noiz-nahi. Jakina, hori da gure ustez erantzunik egokiena. Hori da euskarari egin dakioken mesederik handiena. Baina horretaz gain, euskara lagunduko duten beste gauza asko egin litezke. Ez ditugu hemen denak bildu, baina bai horietako batzuk, gure ustez beharrezkoak eta eraginkorrak izan daitezkeenak.

Ez dugu hamar mandamenduen antzekorik sortu nahi, eta ez diogu inori zer egin behar duen agindu nahi. Soil-soilik, lagungarri gisa, euskara laguntzeko zenbait aukera azpimarratu nahi ditugu, mesedegarri izanen delakoan. Hauek dira:

Ezezagunari lehendabiziko hitza euskaraz egin

Normalean lehendabiziko hitzak erabakitzen du elkarrizketa zer hizkuntzatan egingen den. Euskaraz hasiz gero, errazagoa da euskaraz jarraitzea. Ezezagunak, euskaraz ez badaki ere, ez digu hozka egingen euskaraz egin diogulako.

Euskararen aldeko talde edo elkartetan parte hartu

Euskara taldeak, batzordeak... irekiak izaten ohi dira, eta lan horretan denon beharra ere bada. Talde, elkarte edo batzorde hauen bileretan eta lanetan parte hartzea

ere euskararen mesederako da.

Euskararen aldeko ekitaldietan parte hartu

Euskararen aldeko ekitaldi ugari egiten da, nahiz Euskal Herrian, nahiz gure herriotan. Ziur asko uste duguna baino garrantzitsuagoa da hauetan parte hartzea, arrazoi ezberdinengatik: herriarrok hizkuntza nola baloratzen dugun erakusten du eta hau garrantzitsua da euskararen aldeko politikak martxan jartzeko; batzuetan, euskararentzat baliabideak lortzen dira (dirua edo bestelakoak); euskararen aldeko lanetan dabiltzanak indarberritzen ditu...

Euskaldunon hizkuntza eskubideen urraketak salatu

Hiztunok, baita euskaldunok ere, baditugu hainbat eskubide. Urratzen zaizkigunean, urraketa hori salatzen eskubidea ere badugu. Aukera polita dugu, gainera, Hizkuntza Eskubideen Behatokiaren bitartez (948 146 172). Bertan salaketa horiek jaso eta laguntza emanen dizute.

Jokabide eredugarriak eskertu edo txalotu

Egoera batzuetan ohiturek edo zailtasunek zailago egiten digute euskara erabiltzea. Arazo horien aurrean euskararen erabilerari eusten dionari, edo euskararen erabileran urrats ausartak ematen dituenari, ahalegina eskertzea edo txalotzea ere komenigarria izan daiteke.

Fakturak, erreziiboak... euskaraz eskatu

Erosketak direla eta ez direla, zenbat paper ematen dizkigute? Ez dohanik, gainera, normalean dirutan ordaindu baitugu. Horrek ez al digu eskubiderik ematen paper horiek ere euskaraz jasotzeko? Uste ez badugu ere, askotan eskatze hutsarekin gauza asko

lortzen dira, eta borondatea uste duguna baino handiagoa izaten da.

Administrazioari exijitu zure eskubideak errespetatu ditzen

Administratziotik ere nahikoa paper eta dei jasotzen dugu: espezialistaren kontsultarako deiak, agiriak, laguntzak eskatzeko inprimakiak... Horiek ere euskaraz jasotzeko eskubidea badaukagu. Ez badigute eskubide hori errespetatzen, exijitu dezagun.

Euskarazko produktuak kontsumitu

Erdarazkoak gehiago izan arren, euskaraz ere baditugu irratia, aldizkariak, liburuak, jokoak, bideoak... Zenbat eta gehiago erabili, orduan eta aukera zabalagoa sortu eta indartuko da. Euskararentzat beharrezkoa da, eta euskaldunontzat mesedegarri.

Euskararen aldeko erakundeekin laguntzaile izan

Euskarak, besteak beste, dirua ere behar du. Dirua ematea ere, beraz, euskara laguntzeko beste modu bat izan daiteke. Badira laguntzaile ekonomikoak behar dituzten euskararen aldeko erakundeak: Oinarriak, Kontseilua...

Telefonoa euskaraz hartu

Telefonoz asko hitz egiten da gaur egun. Lehendabiziko hitza izaten da, askotan, elkarrizketarako erabiliko den hizkuntza erabakitzen duena. Lehendabiziko hitz hori euskaraz egitea erraza da, eta askotan baita eraginkorra ere.

Euskaldunekin euskaraz hitz egin

Denetan errazena. Izan ere, zer zailtasun dugu euskaldunekin euskaraz hitz egiteko? Ziur asko, hauxe da euskararen alde egin daitezkeen lanik eraginkorrena, garrantzitsuena.



Etxepare

Literatur Sariak



2004 urtean, Nafarroako hainbat udal bildu ziren, Euskara Zerbitzuen bidez, literatur lehiaketa komuna eta indartsua sortzeko: **Etxepare Literatur Sariak**.

Etxepare Literatur Sariak **haur, gazte eta helduendako literatura** saritu dute bi edizioetan: 4.000 €-rekin lehen biak (txandaka).

Idazle ezagunek jaso dute Nafarroako udalek emandako saria:

- Lehenengo edizioan:
 - Helduendako literatur saria: Alberto Ladronek (6.000 €)
 - Haurrendako literatur saria: Ruben Perezek (4.000 €)
- Bigarren edizioan:
 - Helduendako literatur saria: Patxi Zubizarretak (6.000 €)
 - Gazteendako literatur saria: Hutsik

Etxepare Literatur Sarien bi urteko esperientziaren ondoren, 2006an saria espezializatzeko beharra ikusi zen. Horrela, euskarazko literaturan ahul dagoen esparruaren aldeko apustua egin zen: **haurrentzako album ilustratu**en aldekoa hain zuzen. Izan ere, album ilustratuak indarra hartzen do-

zen arren, euskaraz argitaratzen diren album gehienak itzulpenak dira eta ez euskaraz sortuak. Euskarazko album ilustratuena sorrera bultzatzen duen beka edo lehiaketarik ez dago eta, beraz, alde horretatik ekimen berritzailea dugu hau.

Euskarazko literaturan ahul dagoen esparrua da album ilustratuena. Gaur egun euskaraz argitaratzen diren album ilustratu gehienak itzulpenak dira. Errealitate hori irauli nahian, Etxepare Literatur Sarietan parte hartzen zuten udalek **6.000 €**-ko beka banatu dute.

Beka ez da horretara mugatuko ordea, sari ekonomikoaz gain, **irabazlearen albuma argitaratu** egingen da. Pamiela argitaletxeak argitaratuko du euskaraz, eta Faktoria K de libros argitaletxeak gaztelaniaz eta galegoz. Garrantzitsua da sormena ez ezik, produkzioa ere sustatzea, albumak dituen ezaugarriengatik garestia baita horiek argitaratzea eta horrek euskarazko albumen sormena oztopatzen baitu. Gainera, albuma euskaraz argitaratzeaz gain, beste bi hizkuntzetara itzultzea pizgarri handia da euskal idazle eta ilustratzaileentzat.

Haurrentzako album ilustratuak sortzeko Etxepare Bekaren lehen edizioak parte-hartze espektatiba guztiak gainditu zituen:



24 album aurkeztu zituzten lehiaketara. Saria Pello Añorga idazleak eta Jokin Mitxelena ilustratzaileek jaso zuten.

Berriki, maiatzaren 21ean hain zuzen, I. edizioko sari-banaketa ekitaldia egin zen Iruñeko Tres Reyes hotelean. Bertan jakinarazi zen saria irabazi duten egileen izena:

- Album ilustratua

Testuaren egilea: Pello Añorga

Ilustratzailea: Jokin Mitxelena.

Narrazioaren titulua: *gerlari handia*

Saria: 6.000 euro

Epaimahaia: Maddi Iratzoki Bertiz, Juan Cruz Igerabide Sarasola, Yolanda Arrieta Malaxetxerria, Elena Odriozola Belaztegi.

ETXEPARE BEKAREN HELBURUAK

Etxepare Bekak helburu nagusi hauek ditu:

1. Euskarazko album ilustratuen sormena eta produkzioa sustatu eta laguntzea. Literatur sormena bultzatzeko eta suspertzeko bestelako bideak ere egon badaude, baina sormen-lanak sartzeari ere lagungarria da, zalantzarik gabe. Euskal Herrian bada literatur sarien nolabaiteko tradizioa, baina orain arte ez zegoen album ilustratuak sarituko dituen saririk.

2. Literatur lehiaketen alorrean erreferentzia izan den saria sortzea Nafarroan. Badira Nafarroan zenbait literatur lehiaketa edo sari, normalean toki-entitate jakin batzuek deitutakoak. Sari honek, berriz, Nafarroa iparralde eta erdialdeko ia udal guztiak biltzen ditu. Berez, hedapen handiko ekimen publikoa da, eta sariaren zenbatekoagatik ere bestelako dimentsioa dauka. Bekaren xedea beste literatur sariena ez bezalako izanik, erreferentzialtasuna handiagoa da.

ANTOLATZAILEAK

Saria Nafarroako hainbat udalek antolatu dute, haien Euskara Zerbitzuen bitartez. Hauek dira entitate antolatzaileak: Auritz, Erroibar eta Luzaideko Udalak; Barañaingo Udala; Baztango Udala; Bortzirietako Euskara Mankomunitatea; Burlatako Udala; Nafarroako Iparraldeko Euskara Mankomunitatea; Lizarrako Udala; Malerrekako Mankomunitatea; Orkoién, Oltzako Zendea, Etxauri, Ollaran eta Bidaurretakako Udalak; Sakanako Mankomunitatea; Zaraitzu eta Erronkariko Udalak; Zizur Nagusiko Udalaren Kultur Patronatua.

Egitasmoaren kudeaketaz Sakanako Mankomunitatea arduratzen da.

BEKAREN EZAUGARRIAK

1. Albumaren ezaugarriak: Sari honetara aurkeztu ahal izango dira hurrei zuzenduriko lan ilustratuak.

Proposamenak album ilustratuaren ezaugarriak izango ditu, hau da, osagarriak diren irudi eta testu laburren bitartez istorio bat kontatuko du.

2. Egileak: Lehiaketan honela aurkeztu daiteke: bakarka edo idazle eta ilustratzaileek osatutako taldean.

3. Epaimahaia: Epaimahaia haur literatura eta ilustrazioan adituak diren pertsonak osatuko dute. Ez da saririk emanen epaimahaiaren iritzi gutxieneko kalitateko lanik ez badago.

4. Beka: Sari bakarra emango da, 6.000 eurokoa, egile eskubideen aurrerapen gisa. Bekaren diru-kopuruaren erdia, izendatu bezain laster jasoko du irabazleak eta beste erdia, album amaitua entregatu eta epaimahaikoek onespina emandakoan.

5. Aluma amaitzea: Irabazleek saria jaso eta sei hilabeteko epea izango dute album ilustratua amaitu eta emateko.

6. Aluma argitaratzea.



Jokin Mitxelena

Rafael Pikabea 37, Bomberg 5
20180 Oiartzunen
56567 Neuwied-Alemania
943/491351
00492631 955300
michelena@t-online.de

Donostian (Gipuzkoa) 1962anjaio zen, eta umetan bertan eta Gipuzkoako Oartzunen-bizi izan zen.

Arte Ederrak ikasi zituen Bilbon eta bi arlotan egin du lan: batetik, irakaskuntzan eta, bestetik, haur eta gazte literaturako liburuak eta testu liburuak ilustratzen.

80ko hamarkadaren erdialdean egin zituen lehenengo lanak ilustrazioaren arloan (Pottoko, Pello Añorga, Elkar, 1985; Tio Xentimo, Pello Añorga, Erein, 1985); irakaskuntzan zebilenean ere sarritan egiten zuen lan euskarazko literaturako argitalpenetarako.

Halaber, garai horretan hasi zen elkarlanean Pello Añorga idazle eta ipuin-kontalariarekin. Harrezkero, sarritan osatu dute idazle eta ilustratzaikbikotea; haurrentzako Marripuinak ere sortu zuen, oraingoan ipuin-kontalari eta ilustratzaile bikotea osatuz.

1995. urtean utzi zuen irakaskuntza, Alemaniara joan zenean, hain zuzen ere. Harrezkero, ilustraziora zuzenduta dago bere lan guztia. Orain Alemanian bizi da fan;l.Íliarekin.

Espainiako eta Alemaniako Argitale-txeekin argitaratzen ditu gaur egun bere lanak.



Pello Añorga

Ogibidea: Ipuin kontalaria
Tfnoa: 943490300
E-mail-a: panorga@euskalnet.net
Helbidea: Pello Añorga
RAFAEL PIKABEA, 38
20180-OIARTZUN

Aipamen biografikoa:

Donostiako Irakasle Eskolan ikasi ondoren, irakasle lanetan aritu zen Oartzungo Ikastolan (1976-86), espresibide ezberdinak landuz: plastika, antzerkia, musika... Ikastola utzi (1986) eta ipuinak kontatzen hasiko da buru belarri, batzuetan bakarrik eta bestetan marrazkilariek edota musikariek lagunduta, aitzindari izango dena, Hego Euskal Heman behinik behin, bibliotekako "ipuin ordua"-rekin.

Bidebatez, Mondragon Unibertsitatean, Eskoriatzako Irakasle Eskolan, Haur Liburu Mintegiaren sortzaileetako bat izango da, eta, haur liburu animaziogintzan hainbat proiektutan parte hartuko du: lehen Haur Liburu Aretoak diseinatzen (Getxo, Durango, Amurrio, Legazpia...), Galtzagorri sortzen, Irakur Gidak plazaratzen, *Kukuluma* edo *Kukumira* aldizkariak argitaratzen, ipuin kontaketa buruzko ikastarok ematen, ipuin-ordua hedatzen...

Idazle modura, haur literatura landu du: ipuina, batik bat, poesiaz ahaztu gabe; eta albuma.

Ezetz asmatu



Harrigarria da txikitan denok (edo gehienok) izaten dugun on eta aingerutxo aurpegia. Sekula deus txarrik egin ez dugula ematen du, ezta? Urteekin, ordea, itxura aldatuz joaten da eta malizairen aztarnak ere agertzen hasten dira. Baina polita da, nolana ere, garai batean nolakoak ginen ikustea, eta aldea ikustea.

Horretarako, jakina, argazkian agertzen direnak nor diren asmatu egin behar da. Ez zaigu iruditzen lan zailegia jarri dugunik. Hain aspaldikoak ere ez dira argazkiak eta, batzuetan behintzat, 100 urte pasata ere esanen genuke aisa ezagutuko genituzkeela.

Tira, ea lan handiegirik gabe aurpegiok ezagutzen dituzuen.

Pertsonaia ezkutua

Pistak behar dituzula? Zertarako? Arreta pixka bat jartzea besterik ez da behar. Pertsona gaztea da. Hori gutxienez aurreratuko dizugu. Neska edo mutila izan daiteke. Hori ere, zure lagungarri. Argazkia manipulaturuta dago. Badaezpada esaten dizugu, agian ez zarelako ohartu. Ez da inoiz Marmari aldizkariko atal honetan atera.

Gehiago? Ez, noski. Hainbesteko laguntza emanda ez baduzu asmatu, alferrik ari zara, ez duzu asmatuko-eta. Laguntza eskatu ondokoari eta aitortu ezazu zu baino trebeagoa dela.



Hitz gurutzatuak

OKELA ARDOA BIMAMATERO DITZ	LAU, IKOL ZU	ZO, ETHERINA KONTZERTAL- TERA	EDARRE SAUTZ KO SAREAN FLAKETA	LEBERGAN LAGUNA SALTZARIN MAYOTE	PETTSAMAA REN AZULENA SALNEZ, KISAI
IBROSIEM KODIA		BURROKA SARTORNEC NOI AZZOLA			
	SHIKO, KODIAL ARABATE				IDI RTZ, ELKARRICEM INTSOKU BOTA
GALEKO HIBETSO BETZ				GAZOKONO DENA	
		LABEKO TREZINA			
EDUZINA ALLARRIOA ERIKAR KIMKOA ALBARRA					BELOKUR DIZI EKOZIA TRESO
					DITZ (ALDI- BANTZO) HOK SAGODIA
PROKAKO, REN DRAGGI HAGUSA SAGOA					
		EDONIA MIGARA KUPOLKO	KANPO NANWEGA KIHERRIA	MOKI ATZONIA GOSKUTZ ATLA	ALAMANA, DAN EDE
HELO TALERO	PETTSAMAA REN EZINA DULZOROA EZ DINA				BURDIA DTE DIZI
				KOAKO KARGATIA DIPALMO KO VONIA	
GAJZAKO KODIA KIBREAN			LIRIA ALA		
		MURGA TITULO DIBKO			YOMA KALTOGA
KIZAVAKA KODAGUNA					HET DIBO, KATAMOTZ LITROA
				ZEMBAT LABURRAGHI HAKHE	

Sudokuak

9 arteko zanbakiak jarri 3x3 lauki bakoitzean, koadro osoko lerroan errepikatu gabe.

		1	5	7			3	
		2			8		5	
9			1			7		2
3						9		
7								6
		8					2	
2		4			5		9	
	6		7			2		
	8			2	9	5		

9		5					7	2
								8
3		7		8				5
		6		2	9		4	
				6				
	4		7	5		1		
	5			7		8		4
	2							
7		4					2	3

TRISTEAK

Kontsulta bat ba omen zuen adibino batek, edo iragarle batek. Eta hantxe atean jartzen omen zuen: adibinoa, iragarlea. Atea jo du eta: "kan, kan, kan". Eta barrutik hotsa:

- Zein da?

- Joder, a ze adibinoa, banoak hemendik!

Gizon bat traktorean trankil-trankil doa, eta halako batean atzetik motor bat etorri zaio, traktorea jo eta airean joan da hogeit metro. Traktoreko gizona ziztu batean joan da eta esan dio:

-Minik hartu al duzu, minik hartu al duzu?

Eta besteak:

-Aizu, hurrengoan trapu gorri bat-edo jarri atzean!

-Bai! Traktora ez duzu ikusi, eta trapu gorria ikusiko duzu zuk!

Familia batean denak bildu omen dira eguberrietan, eta gazteak aitoniari galdetu dio:

— Aitona, aitona! Ikusi al duzu nire tripia?

— Ez, eta zuk pasilloko elefantea?

Aita-semeak sukaldean, eta semeak esan dio aitari:

— Aita, aita, begira, nik Alemaniara joateko asmoa dut, eta Alemaniara joan egingo naiz.

Eta aitak, egunkaria irakurtzeari utzi gabe:

— Beno, nahi duzuna egin ezazu, baina sei t'erdietarako etxean.

Hileta baten ondoren, gorpua bertan zela, denak etxean elkartu ziren. Eta kristoren pena, eta gorputzaren aurrean batek:

— Ez gara deus ere, ez gara deus ere.

Eta ondokoak:

— Gu ere ez, baina kafea ematen dute eta.

EROSKOPOA



Aries: Uda heldu dela eta bikini operazioa egin nahian, baina ez dizu ezertarako balio euria egingen du eta...Erosi aterki bat.



Taurus: Uda iritsi da, baina etxean egon beharko duzu ikasten, iraillean azterketak...



Gemini: Izan zaitetz argia, nahasmen handia sortzen duzu ez baitzaizu ulertzen.



Cancer: Zinea gustatzen zaituz? Aktore izateko sena duzu. Animo!



Leo: San Joanetan su asko saltatu al zenituen? Partza guztiak erretzeko adina? Kontuz ibili suarekin, suak erre egiten du eta.



Virgo: Uda heldu eta konplju guztiak gainazaltzen dira, ez kasurik egin eta konforma zaitetz zure buruarekin.



Libra: Ondo pasatzeko garaia da, disfruta uda laster amaituko da eta.



Scorpius: Uda heldu dela, heldu dela, baina ez emozionatu gehiegi eguzkiaren, ateratzen bada.



Sagittarius: Eguzkia nahi baduzu kanpora atera beharko zara, hemen behintzat nahiko lainotsu izane da uda osoa.



Capricornius: Utzi alde batera zure umore txarra, eta disfruta ezazu daukazunaz. Uda amaieran ezusteko galanta izanen duzu, eta baita atsegina ere. Eutsi goiari!



Aquarius: Pestetan parranda asko egin duzu, eta orain diruruik gabe geratu zara eta lan egin behar.



Piscis: Lau hostoko hirusta bat aurkituko duzu. Zure zorreak onera egingen du, parranda asko egiteko eta oportetara joateko adina diru izanen duzu.

IZEN-ABIZENAK EUSKARATZEA ERRAZA ETA LABURRA DA. ORAIN DUZU HORI ALDATZEKO AUKERA

Euskal izen-abizenak badituzu, baina agiri ofizialetan erdal grafian agertzen baldin badira, **ORAIN** duzu hori aldatzeko aukera. Gaur egun egin beharrekoak oso errazak dira, eta denbora motzean egin daitezke erroldatuta zauden herriko Erregistro Zibilean Udaletxean bertan.

IZENA EDO ABIZENA EUSKARATZEKO ETA ALDATZEKO AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA:

- 1 Eskatzailearen erroldatze agiria (Erroldatua zauden herriko udaletxean eskatu).
- 2 Eskatzailearen hitzez-hitzeko jaiotze agiria (herriko udalean edo Iruñeko Erregistro Zibilean eska dezakezu).
- 3 Nortasun agiriaren fotokopia etoriginala.

DHARRA:

- Aurreko dokumentuak 18 urtez gorakoentzat dira.
- Adingabeak abizena aldatzeko derrigorrezkoa da gurasoekin bertaratzea eta famili -liburua aurkeztea.
- Amak edo aitak abizena euskaratuz gero, adingabeko seme-alabena automatikoki aldatzen da.
- Izena edo abizena aldatu nahi baduzu Iruñeko Erregistro Zibilera jo beharko duzu eta eskaera egin.

KONTSTULTARRAKO TELEFONOAK:

Leitzako Bake Epaitegia: 948 610 866 (Astelehenetik ostiralera 10:00-14:00, asteakenetan ez daude).
Iruñeko Erregistro Zibila: 84 84 24 008
Gainerako herrietan erroldatuta zaudeten udaletxera joan ohiko ordutegian.
Euskara Zerbitzua: 948 510 814

ZURE IZEN-ABIZENAK EUSKALDUNDU:

Zure euskal abizenak euskal grafiara zuzendu nahi baduzu: Zure izena zuzendu edo euskaratu nahi baduzu:

- Cestau >> Zestau
- Sagastibelza >> Sagastibeltza
- Alduncín >> Alduntzin
- María >> Miren
- Iciar >> Itziar